

① ELHEKETA - ASTE HUNTAKO SOLAS BIDEA

- 1- Kastillak noiz menperatu zuen Nafarroa?
- 2- Biarhoa noiz menekoa zen orduan eta gero?
- 3- Karlos hirugarrenak eta Berriko leaugarrenak zer egin zuten?

ZER GINEN ETA ZER GIREN *
BENABARRA

(Benabarreko eskuaraz)

Denek badakizie, irakhurleak, Espainiak Nafarroa ga^a haitu zuelarik 1512'an mendiz hego aldekoa bakarrik menperatu zuela, bainan ez Benabarre, gure mendiz haraindiko eskualdea. Beraz, Nafarroako erresuma, arras thipitua izanikan ere, oraino xutik zagon, bere errege eta gorthcarekin.

Biarhoa gure erregearen menekoa zelakotz Pauen finkatu zen, eta han eraiki ginuen «Parlamento de Navarra» deitu yauregia, deputatuen bilkhuretako, egungo egunean oraino husten ahal dena, zahartua.

Yakhinarazi behar dugu hango nafartarrak suharrenak eta leialenak izan zirela denen arthean.

Lauetan hogoi urthe egon ziren bere erresuma xumeari khartsuki atxikiak, neholere ez frantsestu nahiz. Eta ohartzekoa da Campion yakhintsunak erran daukuna, Nafarroako aithorenseme gehienak, argituenak eta fidelenak hangoak zirela. Gure Carlos III erregeak ere, 1435'an, hango ehun etxe haundi alxatu zituan aithorensemeko mailerat, «infanzones» izendaturik.

Duque de Alba, Espainiko gudularien buruzagia ibilli zen ere eremu hetan, Garaziko aldean, eta Donianen eta Monyolosen, sarraski, ohointza eta itsuskeri zernahi egin ondoan, azkenian lekhuak hustu zituen eta haia-haia¹, mendi haundiez gairi Auritzerat itzuli.

Henri de Navarre, gure azken erregeak, Frantziako rege izendatu zutelarik, nahi izan zuen deitu izan zain «Roi de Navarre et de France», bainan frantsesek etzuten yasan heien erresuma handiaren izena Nafarroa niniñoaren² ondotik ezartzea, zuzena zen bezala. Geroztik, hango erregeak deitzen ziren «Roi de France et de Navarre», Luis XVI azkeneraino. Eta Frantziako zigiluari eratxiki zazkoten Nafarroako gathinak³, eta oraiko eguntan oraino ikhusten ahal dira Versailles, Fontainebleau eta beste erregeren yauregi aiphatuenetan.

Bainan etzazuela uste Benabarra Frantziari elgartu zelakotz bere legeak galdu zituela. Ez, beren erregea Frantziakoa aldiz izanikan ere, Benabarra bere lege ber berekin gelditu zen, arthoski zaindiak, erresuma berexi bat bezala.

Hots, gu bezalatsu, Espainiari estekatu ginituzten ondolik.

III Erregea hil zen 1425 an. Bada hor huts bat ere ustez -

④ ADITZ IKASKUNTZA -

31. Badakizie 32. Xutik zagon -

33. Eratziki zazkoten 34. Etzazuela -

31. JAKIN. Indic. Present. Objet sing.

| | | | |
|--------------|------------------|---------|-----------|
| Nik dakit | = je le sais | } O. S | |
| Hik dakik | = tu le sais | | |
| Zuk dakizue | = vous le savez | | |
| Harek daki | = il le sait | | } Conjug. |
| Guk dakigu | = nous le savons | | |
| Zuek dakizue | = vous le savez | } forte | |
| Heiek dakite | = ils le savent | | |

O. P. = dakit ou dakizkit = je les sais -

32. Egon. Conj. forte. Indicatif -

| Present | Imparfait |
|-----------------------|----------------------|
| (Ni) nago = (je) este | nindagon = (je) este |
| (Hi) hago | hindagon |
| (Zu) zande | zinauden |
| (Hura) dago | zagon |
| (Gu) gaude | ginauden |
| (Zuek) zaudete | zinaudetzten |
| (Heik) daude etc. | zauden etc. |

33. UKAN. Conj. à dble Cpt. Indic. Imparfait

Objet pluriel • Hari = à lui. C. Ind. sin

| | |
|-------------------------------------|------------------------|
| Nik nizkion (nizkon) | = je les lui avais |
| Zuk nizkion (zizkon) | = vous les lui aviez |
| Harek nizkion (zizkon) | = il - " - avait |
| Guk nizkion (gizkon) | = nous - " - avions |
| Zuek nizkion (zizkoten) | = vous - " - aviez |
| Heiek nizkion (zizkoten) | = ils - " - avaient |
| C. périph. Emaiten nizkion (nizkon) | = je les lui donnais - |